

**BILBAO BIZKAIA KUTXA - EUSKALTZAINDIA,
LITERATURA SARIEN AURKEZPEN-BANAKETA**

Bilbo, 1996-VI-28

**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA,
1995.EKO LITERATURA SARIEN
BANAKETA**

Bilbo, egoitza, 1996-06-28

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

- Bilbao Bizkaia Kutxako agintari jauna,
- Idazle maiteak,
- Euskaltzainkideak,
- Kasetari jaun-andereak, agur.

Urtero bezala banatzen ditugu gaur Bilbao Bizkaia Kutxak eta Euskaltzaindiak sortu dituzten sariak, lau sari, eleberriarena, olerkiarena, antzerkiarena eta saiakerarena. Bilbao Bizkaia Kutxak eskaintzen du dirua —hiru milioi eta erdikoa— Euskaltzaindiak emaiten babesa, epaimahaiak bilduz, euskaltzain oso edo urgazleetan hautaturik. Karia horretara ez baita lan ttipia lan guzien irakurtzea eta iritzia emaita.

Eskerrik asko beraz Bilbao Bizkaia Kutxari ez baititu bakarrik sariak emaiten, baina argitaratzen baititu liburuak ere; eskerrik bizienak epaimahaikoei egin duten lanen eta hautaketengatik eta zorionak saristatuak izan diren idazle guziei.

Orain emaiten diot hitza Juan Mari Lekuona, euskaltzainburuordea eta Literatura batzordeburuari.

BBK - EUSKALTZAINDIA 1995.EKO LITERATURA SARIEN BANAKETA

Bilbo, 1996-06-28

Juan Mari Lekuona

Euskaltzaindia - BBK Sariak, 1995ekoak, liburu eginik aurkezten ditugu une honetan. Idazlanak arakatzeko erarik izan ez dugunez, idazkiak jendaurrean agertzeko ordu pozgarrian, autoreei buruzko xehetasunak emango ditugu, gehiagorako ez denez, oraingoz, daukagun informazioa.

Lehenik, Txomin Agirre Saria, nobela, eleberrigintza-alorrean. Epai-mahaikoak, Xabier Gereño, Txomin Peillen eta Ana Toledo. Saritutako eleberria *Hiru egun Larburun*, egilea Luis Mari Mujika Urdangarin delarik, jaiotzez Lizartzakoa eta Donostian bizi dena. Euskal Filologiako Irakasle da Euskal Herriko Unibertsitatean eta liburu ugari idatzi ditu euskal lexikoari eta toponimiari buruz. Ez da gutxiago ezaguna euskal literaturan, bereziki poesian eta nobelagintzan nabaritu delarik bere ekarri literarioa. Poesi alorrean gogora ekar dezagun bere *Urdin eta burni* 1965ean argitaratu zuela; eta bere *Hitzak ebakitzean* poemategiak 1975eko Kritika saria irabazi zuela; eta *Aire neurtu*an izeneko poemekin Lizardi saria bereganatu zuela. Prosagintzaren esparruan, berriz, aipatzekoa da *Poeta baten narrazio nagiak*, 1986ko Irun saria jaso zuela; eta *Udapartean Loitzu* eleberriarekin, aurtun bezala, Txomin Agirre saria irabazi zuela, eta beraz, aurtengoa ez duela lehenengo aldia; eta azkenik *Urtuella lekuko* ere idatzi duela, azkeneko Durangoko Azokan aurkeztu zuena. Aspaldiko idazlea, nekaezina, eskarmentu luzekoa euskal literatur alorreko sorkuntzan, gaurko sari honi bere izen ona eranstean diona.

Bigarren, Toribio Alzaga saria, antzerkiaren alorrean. Epai-mahaikoak Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu. Saritutako antzerki-idazlana *Hegazti errariak* izenekoa, autorea Juanjo Olasagarre Mendinueta duelarik, Arbizun jaioa 1963an. Ogi-bidez euskara irakasten dihardu. Gaztea bada ere, bere izenak sona badu euskal olerkigintzan: *Gau pasa* (1991) izeneko poemategi baten egilea dugu; gero 1994an poema ingeles, Anden izeneko baten poesiak euskaratu eta argitaratu zituen *Poemak* izenburupean. Oraindik orain "Imáginat Euskadi 1995" jaso zuen euskal poesiaren sailean. Gaztea eta nafarra izateak distira berria ematen diote guk aurkezten dugun sariketari.

Hirugarren, Felipe Arrese Beitia saria, poesiakoa. Epai-mahaia osatzen zutenak, Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Juan Mari Lekuona. Saritutako poemategia *Arzius* deritzana izan zen. Autorea, Jose Felix Azkona Gartzia, Iruñean jaioa 1953an. Ekonomian lizentziatua dugu, euskara irakasten du, Iruñeko Irratian esatari eta errealizadore. Gaur egun itzultzaile eta interpretari da Nafarroako Trafiko Ordezkaritzan. *Korro*k aldizkariaren sortzaile da eta bertako lankide. Iruñeko Udalaren Poesia saria irabazi zuen 1993an. Bere lankidetzeta eta itzulpenak ohikoak dira kazetetan eta aldizkarietan, hala nola "Nafarkaria"-n.

Laugarren, Mikel Zarate saria, saiakera alorrean. Epai-mahaia osatzen zutenak, Adolfo Arejita, Andolin Eguzkitza eta Alfonso Irigoien. Saria irabazi zuen saiakera *Nemesio Etxanizen biografia* izan zen. Autorea, Pako Sukupe Elortza, Azkoitiko semea, Hernanin bizi dena, 1959an jaioa. Doktoregoa egin du filosofian, euskara irakasten du, Pasaiaiko Euskaltegian ari delarik gaur egun. Bere sinadura agertzen da gaurko kazetetan eta aldizkarietan, batez ere *El Diario Vasco* eta *Egunkaria*-n. Unibertsitari mailako lanak eskaini dizkio Azkoitiko poeta zenduari, honen irudi eta lana argituz, sendotuz eta gaurko zirkuituetan sartuz.

Autoreon maila kontuan hartuz, eta berdin hemendik aurrera ere egin dezaketen idazlan norberezkoa, BBK eta Euskaltzaindia jabetzen dira ohoretu baizik ez dutela egingo sariketa hau, aurreko irabazleek ere hala egin izan duten bezala denboraren joanean. Idazleok gero eta lan bikainagoak egiteko zoria izan dezatela, geu ere harro senti gaitezen sariok bete dutelako beren helburua.

1995eko BBK-EUSKALTZAINDIA LITERATURA SARIAK

Bilbo, 1996-06-28

*Jon Mancisidor,
Bilbao Bizkaia Kutzako ordezkaria*

Egunon Euskaltzainburu jauna, lagun agurgarriak.

Urtero, duela hogeita bost urtetik hona, garai honetan, gaurkoaren antzeko egintzara bildu izaten gara helburu birekin:

Lehenengo eta behin, 1995eko literatura sariak —ia lau milioi pezeta— iragarri eta ematea; eta bigarrenik, 1996rako sarietarako deia luzatzea.

Euskaltzaindia eta BBK bezalako erakundeen arteko harremanek hogeita bost urte gainditzea garrantzi handiko gertakaria da. Berez, nekez aurkitzen da hain lankidetzaz luze eta emankorra euskara eta euskal kulturaren sustapenari atxikiriko bi erakunderen artean. Elkarrekin egindako bide luze honi esker daukate sari hauek egonkortasuna eta ospea, eta horri esker ere hurbildu izan da euskal literaturan hain prestigiotsu den jendea.

Hala nola Gabriel Aresti, Mikel Zarate, Bitoriano Gandiaga, Orixe, Txillardeggi, Jon Etxaide, Eusebio Erkiaga, Agustín Zubikarai, Gotzon Garate, Martín Ugalde, Xabier Lete, Julene Azpeitia, Txomin Peillen, Lourdes Iriondo, Junes Casenave, Joanes Urkijo, Ibon Sarasola, Patxi Ezkiaga, Jon Kortazar, Patri Urkizu eta abar luze bat. Ikusten denez, euskal literaturako urrezko orrietan agertuko diren izenik gehienak daude hemen.

BBK-kook gertakari honek erabat pozten gaitu eta bide horri jarraitzeko adorea ematen digu.

Aurtengo sarituak honako hauek dira: elaberri sailean, Luis M.^a Mujika; antzerkian, Juanjo Olasagarre; olerkian, Jose Felix Azkona; eta saioan, Pako Sodupe.

Berriro ere egileekin bidezketasun osoz jokatu dela uste dugu; hala ere, bidean beste hainbat lan interesgarri geratuko zen diziplina guztietan, izan ere, epaimahaikideek urtez urte arazo ugari izaten baitute erabakiak hartzeko. Honek euskal literatura hartzen ari den kalitate eta maila erakusten du. Hau, oso pozgarria da gu guztiontzat, herrialdearen garapen kulturalaren erakusgarria delako eta lanean segitzeko bultzada baita ere.

Aurtengo saridunen artean, nabarmentzekoa da dagoen dibertsitatea. Beste alde batetik ia beti ematen dena literatur sariketa honetan. Batetik idazle kontsagratuak ditugu, sariketa berau aurretik ere irabazitakoak, eta bestetik, hain ezagunak ez direnak. Berez, sariketa baten helburuetariko bat, hori ere bada; hau da, idazleak berriak ezagutaraztea, irakurleei hurbilduz eta bidea zabalik utziz etorkizunerako.

Guztiei, BBKren izenean, nire zorionik beroena. Lanak bidali eta epaimahaiaren erabakiaren menpe egon diren guztiei ere, nire eskerrona eta horretan segi dezaten gurari zintzoa, egunen batean sari hautakoren bat jasoko dutelako esperoan.

Zuei guztioi, mila esker gaur, hemen, berriro ere, gure Herriaren garapen kulturalerako hain garrantzitsuak diren une hauek elkarbanatzen egoteagatik.

**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA,
1995.eko LITERATURA SARIEN
BANAKETA**

Bilbo, 1996-06-28

*Jean Hartischelhar,
euskaltzainburua*

AZKEN HITZAK

Ekitaldi hau bukatu baino lehen, aurkezten dugu egun 1996.eko literatura sarien egitaraua, 'Txomin Agirre' saria eleberrirako. 'Toribio Altzaga' saria antzerkirako. 'Felipe Arrese Beitia' olerkirako. 'Mikel Zarate' saria saiakerarako, lauentzat azken epea delarik urriaren 16a.

Bertzerik ez, agur denei.